

# hezkidetzarako Gida



**URDUÑA  
ORDUÑA**  
Berdintasun saila



**BFA  
DFB**  
Bizkaiko Foru Alkuntzia  
Diputación Foral de Bizkaia




# Zer da hezkidetza?

«Hezkidetza, baterako heziketa edo koedukazioa» kontzeptuaren definizioa:

**«Hezteko metodo bat da, sexuen arteko berdintasunaren eta sexuagatiko bereizkeria-ezaren printzipioetan oinarritzen dena».**

Beraz, gizon eta emakumeentzako tratu- eta aukera-berdintasuna dagoen hezkuntza eremuak sortzera bideratutako **hezte-ekintza** da, non errespetua eta tolerantzia nagusi baitira eta sexismo oro baztertuta baitago.



## Baina zer lortu nahi dugu haurrekin hezkidetza landuta?

- ✓ Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala sustatzea. Aukera eta eskubide berberak izatea.
- ✓ Emakumeek aukera izatea gizonen ardura-postu berberak hautatzeko eta lanpostu horiek eskuratzeko.
- ✓ Tratu txarrak eta genero-indarkeria prebenitzea. Errespetuan oinarritutako harreman ez biolentoak lantzea.
- ✓ Emakumeei ikusgarritasuna ematea bizitzako arlo guztietan, eta emakumeek historian zehar izandako bizipenak erakustea. Hau da, emakumeen eta gizonen ereduak erakustea, batzuen zein besteen historian sakondu ahal izateko.
- ✓ Gurari eta ahalmenak garatu ahal izatea emakume ala gizon izatetik eratorritako trabarik gabe.

Hezkidetza, dena dela, heziketa-elementu bakarrera bideratutako ekintza zehatzak baino zerbait gehiago da, adibidez: semeari eskatzea etxeko lanetan laguntzea; edo eskolaz kanpokoetan alaba futbol-entrenamenduetara eramatea.

## Hezkidetzak zera dakar, besteak beste:

- ✓ Inor baztertzen ez duen hizkuntza erabiltzea. Errespetuz hitz egin behar da, eta dagokion balioa aitortu behar zaie emakumeei zein gizoni, eta haiek egiten dutenari.
- ✓ Irakasten denari buruz eta irakasteko moduari buruz hausnartzea. Ikustea ea haurrei eskaintzen dizkiegun heziketa-baliabideek (jolasak, jostailuak, ipuinak...) euren jakin-mina eta ikaskuntzak areagotzen ala murrizten dituzten.
- ✓ Haurrei eskaintzen dizkiegun emakume eta gizonen erreferenteak: bai geure buruaz zer erakusten diegun, bai beste gizon eta emakumeei buruz zer transmititzen diegun.
- ✓ Familia-mota eta elkarbizitza-eredu desberdinenganako errespetuan hezteak.



# Zein da familiaren papera?

Familia, lehen mailako erakunde gizarteratzailea da eta, ondorioz, familiarena da haurrak hezteko ardura nagusia.

Familia funtsezkoa da haurrek beren ahalmenak garatu, libre hazi eta ahalik eta aukera gehien baliatzea ahalbidetuko dien heziketa jasotzeko.

Eta **hezkidetza**, helburu horiek gauzatzea da.



## Noiz hasi behar dugu?

Mutikoa ala neskatoa?

Orduantxe hasten gara igortzen sailkapen horri lotutako mezuak.

Izan ere, umeak bere sexuekoekin eta beste sexukoekin izango dituen harremanen ganean hezten da une oro.

# Berdin hezten al ditugu seme - alabak?



Pertsona bakoitza bakarra eta besteengandik desberdina da, haurrak ere, berezko ezaugarriak dituzte, bai fisikoak, bai pertsonalak. Horrek esan nahi du guztia ez dela egokia guztientzat. Beraz, gauzak gure seme-alaben ezaugarrietara egokitu beharko ditugu. Jarraian, hezkidetza lantzeko gako batzuk emango dizkizuegu. Kontuan izan, dena dela, garrantzitsua dela gako horiek zuen egoera partikularrera egokitzea.



# Lehen Haurtzaroa (0-6 Urte)

Zergatik da garrantzitsua lehen haurtzaroari arreta ematea?

Hona hemen arrazoiak:

- ✓ Gizakion garapenerako etapa garrantzitsuena delako.
- ✓ Gizarte-desberdinkeria murrizten duelako.
- ✓ Eragin positiboa duelako prozesu sozial eta kulturaletan.
- ✓ Onuragarria delako hezkuntza-sisteman sartzeko eta bertan mantentzeko.



Bizitzaren lehen sei urte horiek oso garrantzitsuak dira norbanakoon garapen eta prestakuntzan. Gorputzak eta adimenak beren oinarriko egiturak garatzen ari dira, eta horietan oinarritzen da geroko hazkunde-prozesu guztia.

- Besteekin harreman afektiboak sortzeko gaitasunak finkatzen dira.
- Komunikazio-gaitasunak sustatu eta bultzatzen dira, alor guztietakoak.
- Oinarriko gaitasunak ere garatzen dira, adibidez: motrizitatea edota hizkuntza bera.
- Zenbait balore ezartzen dira, irmoki: tolerantzia, errespetua, ahalegina, elkartasuna.
- Zenbait gai finkatzen dira: hurrek euren buruari, munduari eta ingurukoiei buruz duten irudia.

## 0-6 Urte bitarteko haurrentzako baliabideak

Ipuinak:

IZENBURUA	HIZKUNTZA	IDAZLEA	ARGIALETXEA
Arturo y Clementina	Gaztelania	Adela Turín	Ed. Lumen
Hori Aurpegia	Euskara	Patricia Geis	Ttarttalo
Ni un besito a la fuerza Derrigorrez musurik ez	Gazt. / Eusk.	Marion Me- bes	Popular libros
Martin y la pirata Candela	Gaztelania	Nuria Varela	Hotel Papel
Cosquillas / Kili kiliak	Gazt. / Eusk.	Barbé, A. Carro, S.	Bellaterra



### Jolasak eta jostailuak:

Etapa erabakigarria da haurtzaroa: sasoi horretan bizitakoek itzala uzten digute. Gainera, bizipen horien bitartez finkatuko dira norbanakoen rol sozialak, autoestimua, errespetua, lankidetzeta eta beste zenbait balore. Hurrek jolasak baliatzen dituzte elkar ezagutu eta elkarrekin harremanak izateko.

Beraz, oso garrantzitsua da jolas eta jostailu egokiak aukeratzea, horiek izango dira hurrek ingurunearekin hartu-emanak izateko baliatuko dituzten tresnak.

Jolasak eta liburuak hezteko tresna dira, ez dira elementu neutralak. Hori bai: ez dago neskatoentzako eta mutikoentzako jolasik.

Jostailuek **ez dute sexurik**, bereizketa hori kulturaren eraginez ezarritakoa da.

## Ipuin eta jostailu ez-sexisten helburuak:

- ✓ Ez errepikatzea sexuaren arabera esleितutako genero-rolak.
- ✓ Norbanakoaren garapenean laguntzea, berezko gaitasunak bultzatuz.
- ✓ Sexu-estereotipoak eta indarkeriaren transmisioa ekiditea.
- ✓ Eredu ireki baten baitan jolasteko aukera ematea.
- ✓ berdintasunean oinarritutako bizimodu berria bultzatzea.



## Bigarren Haurtzaroa (7-12 urte)

Eta honetan zehar zenbait **aldaketa garrantzitsu** ematen dira haurren portaeran.

Txikiek handitu egingo dute beren erreferente-sorta: jada ez dira bakarrik familiara mugatuko, beste eragile sozializatzaile batzuen eragina ere jasoko dute -telebista edo ipuinena, esaterako-. Gehiago baloratuko dituzte lagunak; arauak barneratuko dituzte; eta besteoi ulertzeko gaitasuna garatuko dute.

Eta honetan garrantzitsua da:

- ✓ Emakumeen eta gizonen erreferenteak jartzea beraien esku.
- ✓ Zaintzea zer transmititzen dugun, eta nola transmititzen dugun.
- ✓ Neskatoekin eta mutikoekin harremanak izatea sustatzea. Berdintasunean oinarritutako bizimodu berria bultzatzea.



## 7-12 urte bitarteko haurrentzako baliabideak

Ipuinak:

IZENBURUA	HIZKUNTZA	IDAZLEA	ARGIALETXEA
Berdintasunaren aldeko ipuinak	Euskara	Ayto.Portugalete	Portuigualdad.info
Cuentos para coeducar dirigidos a niñas y niños de ente 6 y 12 años	Gaztelania	V.A.	CEAPA
La mitad de Juan	Gaztelania	Gemma Lienas	La Galera
Carlota-ren egunkari urdina	Euskara	Gemma Lienas	Erein
Nosotras creamos mundo/ Guk mundua eratzen dugu	Gazt. / Eusk.		FETE-UGT
El sendero de las valientes y otras historias	Gaztelania	V.A.	Ins. Nav

## Jolasak eta jostailuak:

Jolasteak funtsezkoa izaten jarraituko du, eta aurreko etapari buruz esandakoa hemen ere aplikatu daiteke. Orain, ordea, beste mota batzuetako jolasak agertzen hasiko dira, adibidez: jolas arautuak. Aurretiaz ezarritako arauak dituzte, jolasteko bete beharrekoak, eta jende gehiagok parte hartzea eskatzen dute. Horrelako jolasek zenbait gauza sustatzen dituzte:

- ✓ Komunikatzeko gaitasunak.
- ✓ Lankidetzeta.
- ✓ Enpatia.
- ✓ Gatazken kudeaketa.



Jolas horietako batzuk dira ezkutaketa, mahai-jokoak, goma, harra-paketa, talde-kirolak, eta abar.

Eta honetan ageri diren beste jolas batzuekin, berriz, haurren trebetasun motorrak eta intelektualak lantzen dira. Horren adibide dira estrategia-jolasak, karta-jolasak, eta abar.

Era berean, bideo-jokoenganako interesa agertzen hasiko dira. Oso zabal da bideo-jokoen eskaintza, Bada, bideo-joko bat aukeratzekoan, elkarlana, trebetasun motorrak edota dedukzio-gaitasuna bultzatzen dituztenen alde egin behar dugu.

## Ondorioak

Ondorio nagusi bezala, **hezkuntza funtzeskoa** da gure haurrak desberdintasun gabeko gizarte batean haztea nahi badugu, gizarte bidezkoago batean, emakumeen eta nesken eskubideak urratzen ez diren gizarte batean.

Beraz, gida honetan agertzen den bezala, hezkidetzeta sexuen arteko berdintasunaren printzipiotik eta sexu-arrazoiagatik ez diskriminaziotik abiatzen den **heziketa-metodo** bat da, emakume eta gizonei irizpide sexisten arabera esleitutako rol, balore eta jarrerak kontuan hartu gabe.

Horregatik, haurren ezaugarri pertsonalak kontuan izanez heztea suposatzen du eta errespetua eta tolerantzia inplikatzeko du, indarkeriaren aurkako mekanismo bat da.